



TOLOSAKO  
UDALA

## **SANJOANAK 2024. KARTEL LEHIAKETA**

**San Joan jaiak 2024** iragartzeko kartel lehiaketarako deialdia egiten du Tolosako Udalak.

**01.- Gaia eta kartelaren testua:** Sanjoanak 2024, ekainak 21-24 / TOLOSA, izango da kartel guztietan azalduko den testua.

**02.- Partaidetza:** nahi duen orok parte har dezake. Obra horiek, ideia nahiz edukiari dagokionez, originalak izan beharko dute derrigor, eta jendaurrean aurkezteko modukoak. Ezinbesteko baldintza da lanak lan originalak izatea (ez beste batzuen kopia edo imitazioa, baizik eta egilearen asmamenaren emaitza, IA adimen artifizialaren erabilera alde batera utzita) eta argitaragabeak (inoiz argitaratu edo jendaurrean ezagutzera eman ez direnak). Baldintza horiek betetzen ez dituzten obrak deskalifikatu egingo dira.

Partaide bakoitzak gehienez 3 lan aurkeztu ditzake.

### **03.- Hautaketa faseak:**

Sanjoanetako kartelaren aukeraketak honako faseak izango ditu:

- 1. fasea: lehiaketara aurkeztea, apirilaren 22tik maiatzaren 5era, 14:00ak arte.
- 2. fasea: epaimahaikideek kartel finalista hautatuko dute maiatzaren 8tik 17ra.
- 3. fasea: kartel irabazlearen iragarpena maiatzaren 27etik aurrera egingo da.

### **04. Kartelaren ezaugarriak:**

- **Tamaina:** original guztien neurri bertikalak 70 zm luzera x 50 zm zabalerako proportzioa izango du.
- **Kolorea eta teknika:** aukerakoa. Kartela formatu digitalean aurkeztu behar da irudi bektoriala duen artxibo batean. Artxiboaren gutxieneko erresoluzioa 300 ppp-koa izango da eta gehienez 5 MB izango ditu hautaketaren 1. fasean. Irabazle aukeratu den hautagaiak bereizmen altueneko formatuan aurkeztu beharko dituzte beren proposamenak.
- **Testuak:** erabilitako tamainak zein tipografiak ongi irakurtzea erraztu behar dute.



TOLOSAKO  
UDALA

- **Udaleko irudi korporatiboa:** Tolosako ikur komunikatiboa (T urdina edo txuria) integratuta eramango du kartelak, eta kartelaren behealdean joango da.

**05.- Aurkezteko eguna:** kartelak aurkezteko azken eguna maiatzaren 5a izango da, 14:00etan.

**06.- Aurkezteko modua:** kartelak fitxategi digital batean aurkeztu behar dira, firmarik gabe, Tolosako Udalak bere webgunean ([www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)) horretarako prestatutako aplikazioaren bitartez. Aplikazio horretan kartel bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio eta zenbaki hori izango da epaimahairentzat kartelaren identifikatzailea, sortzailearen anonimotasuna bermatze aldera.

Kartelaren egiletza ezin izango da publiko egin lehiaketaren prozesuaren edozein unetan, ezta sare sozialen bidez ere (instagram, facebook, twitter, You Tube, TikTok, etab.), eta hori deskalifikatzeko arrazoia izango da.

**07.- Fitxategien izendapena:** Fitxategiaren izenean lema baino ez da azaldu behar.

**08.- Informazioa:** 943670388 / [festak@tolosa.eus](mailto:festak@tolosa.eus) / Kultur Etxea – Trianguloa 1 – Tolosa.

**09.- Saria:** 500 euroko sari bakarra izango da, kartelaren irabazlearentzat. Sari honi dagokion atxikipena edo erretentzio fiskala egingo zaio.

**10.-Epaimahaia:** Kultura, Festak eta Gaztedia Sailak izendatuko du, emakumeen eta gizonen ordezkaritza parekatua izango dela bermatuta. Epaimahaia honako hauek osatuko dute: Kultura eta festa zinegotzia, arte/diseinu grafikoko hiru aditu eta San Juanetako jai batzordeko ordezkari batek. Behin proposamen guztiak jasota, arte eta diseinuan adituak diren pertsonekin Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuak izendatutako epaimahaiak bost kartel finalista aukeratuko ditu. Finalista horien artean onena zein den ere hautatu beharko dute epaimahaikideek. Boto horiei Jaietarako Herritarren Batzarreraren beste boto bat gehituko zaie; izan ere, aurtan, lehen aldiz, herritarrek osatzen duten batzarrak bost kartel finalisten artean gustukoena hautatu ahal izango du.

Epaimahaikideek ezin izango dute lehiaketan parte hartu, eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. Artikuluetan Sektore publikoa, abstentzioaren eta errefusatzearen kausei dagokienez.



TOLOSAKO  
UDALA

**11.-** Generoen irudikapenean erabilitako irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez.

**12.-** Saritutako kartela eta beronen era guztietako erreproduzio eskubideak Tolosako Udalaren jabetzapean geratuko dira. Horiek egoki deritzon publizitate lanetan ere erabili ahal izango ditu. Kasu horietan, autoreek ez dute inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik, ez eta jadanik eskuratutako sariaren zenbatekoaz gain beste diru kopururik jasotzeko ere. Gainera, saritutako lanak eduki ditzakeen jabetza intelektualaren gaineko eskubide guztiak Tolosako Udalarri emandakotzat joko dira, inolako kontraprestaziorik gabe.

**13.-** Oinarri horiek interpretatzea Tolosako Udalaren eskumen eskusiboa da.

**14.-** Lehiaketan parte hartzea oinarri hauek onartzea dakar. Oinarri horien eta horiek betearazteko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, nahi izanez gero, honako errekurtsio hauek jarri ahal izango dira:

Erabakia aurkaratu aurretik, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Alkatetzari, hilabeteko epean, erabakia hartu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bestela, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango du bi hilabeteko epean, erabakia hartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, berraztertze-errekurtsioaren ordean edo horri emandako erantzunaren aurka. Errekurtsio hori Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik izan ezean, bai prozedurari amaiera emateko, bai berraztertze errekurtsioari erantzuteko, interesdunak edozein unetan jarri ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsioa. Errekurtsio hori Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian aurkeztu beharko da.



TOLOSAKO  
UDALA

## BASES PARA EL CONCURSO DEL CARTEL DE SAN JUAN 2024

El Ayuntamiento de Tolosa convoca el concurso de carteles para las **fiestas de San Juan del año 2024**, según las siguientes bases:

**1.- Tema y texto del cartel:** El texto que aparecerá en los carteles será "Sanjoanak 2024, ekainak 21-24/ TOLOSA".

**2.- Participación:** podrá participar quien lo desee. Las obras deberán ser originales tanto en lo que se refiere a su contenido como a las formas y serán apropiadas para ser exhibidas en público. Es condición indispensable que las obras sean trabajos originales (que no sean copia ni imitación de otros, sino fruto de la inventiva de su autor, lo que excluye el uso de la inteligencia artificial IA) e inéditos (que nunca hayan sido publicados o dados a conocer al público). Serán descalificadas las obras que no cumplan con estos requisitos.

Cada participante podrá presentar 3 trabajos como máximo.

**3.- Fases de selección:** La selección se realizará en 3 fases:

- Fase 1: La presentación de propuestas se realizará desde el 22 de abril, hasta las 14:00 horas del 5 de mayo.
- Fase 2: Selección del cartel ganador. Los/las miembros del jurado elegirán su favorito del 8 al 17 de mayo.
- Fase 3: El anuncio del cartel ganador se realizará a partir del 27 de mayo.

**4.- Características del cartel:**

- **Tamaño:** serán obras verticales de 70 cm. de alto por 50 cm. de ancho.
- **Color y técnica:** libre elección. Los trabajos se deberán presentar en formato digital en un archivo de imagen vectorial. En la fase 1, la resolución mínima del archivo será de 300 ppp y una capacidad máxima de 5 MB. El ganador deberá presentar su propuesta en un formato de máxima resolución.
- **Textos:** tanto el tamaño utilizado como la tipografía deben facilitar su correcta lectura.
- **Imagen corporativa municipal:** El cartel llevará integrado el símbolo comunicativo de Tolosa (T azul o blanco), que irá en la parte inferior del cartel.



TOLOSAKO  
UDALA

**5.- Fecha de presentación:** El plazo para entregar los carteles finaliza el 5 de mayo a las 14:00 horas.

**6.- Modo de presentación:** Los carteles se presentarán, sin firma, en formato digital a través de una aplicación que al efecto dispondrá el Ayuntamiento de Tolosa en su web ([www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)). En dicha aplicación se asignará un número a cada cartel, que será el número identificativo para el jurado, en aras a garantizar el anonimato de su creador.

La autoría del cartel no podrá hacerse pública en ningún momento del proceso del concurso, ni por ningún medio, incluidas las redes sociales (instagram, facebook, twitter, You Tube, TikTok, etc.), lo cual será motivo de descalificación.

**7.- Nombre del fichero:** En el nombre del fichero solamente ha de constar el lema.

**8.- Información:** 943670388 / [kultura@tolosa.eus](mailto:kultura@tolosa.eus) / Kultur Etxea – Trianguloa 1 – Tolosa.

**9.- Premio:** Se establece un único premio, para el/la ganador/a del concurso, de 500 euros, al que se le aplicará la retención fiscal correspondiente.

**10.- Jurado:** Será nombrado por el Área de Cultura, Fiestas y Juventud, y se garantizará que su composición cumpla con los criterios de igualdad de sexos. La composición del jurado será la siguiente: Concejal de Cultura y Festejos, tres expertos/as en arte/diseño gráfico y un/una representante de la comisión de fiestas de San Juan. Una vez recibidas todas las propuestas, el jurado designado por el Departamento de Cultura, Fiestas y Juventud con personas expertas en arte y diseño elegirá cinco carteles finalistas. Los miembros del jurado también deberán elegir al mejor de estos finalistas. A estos votos se sumará otro de la Comisión popular Fiestas, que este año, por primera vez, podrá elegir el cartel favorito de entre los cinco finalistas.

Los miembros del jurado no podrán tomar parte en el concurso y deberán observar lo dispuesto en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, en lo que a las causas de abstención y recusación se refiere.

**11.-** Las imágenes utilizadas tenderán al equilibrio en la representación de los géneros, sin reforzar los roles y estereotipos tradicionales, evitando un tratamiento peyorativo de las diferencias de sexo, raza, edad, cultura u opción sexual.



TOLOSAKO  
UDALA

**12.-** Serán propiedad del Ayuntamiento de Tolosa el trabajo ganador/a así como todos sus derechos de reproducción. Podrá ser usado, asimismo, en los trabajos publicitarios que se consideren oportunos. En este caso, la persona autora no tendrá derecho a reclamación alguna ni a una compensación suplementaria al premio recibido. Además, se considerarán cedidos al Ayuntamiento de Tolosa todos los derechos de propiedad intelectual de la obra, sin contraprestación alguna.

**13.-** La interpretación de estas bases es competencia exclusiva del Ayuntamiento de Tolosa.

**14.-** La participación en el concurso supone la aceptación de estas bases. Contra estas bases y las resoluciones administrativas que se adopten en ejecución de las mismas podrán interponerse, potestativamente, los siguientes recursos:

Con carácter previo a la impugnación del acuerdo, el interesado podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la Alcaldía en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la adopción del correspondiente acuerdo. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En caso contrario, el interesado podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la adopción del correspondiente acuerdo, en lugar de recurso de reposición o contra la contestación al mismo. Dicho recurso deberá presentarse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Asimismo, en defecto de resolución expresa, tanto para poner fin al procedimiento como para dar respuesta al recurso de reposición, el interesado podrá interponer, en cualquier momento, recurso contencioso-administrativo. Dicho recurso deberá presentarse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.